

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 87 enpresak lehiakortasuna handitu dute gizarteko eta ingurumeneko eragina hobetzen duten jardunen bidez

*Nafarroako Gobernuak 1,5 milioi euro inguru baliatu ditu 2005. urtetik Enpresen gizarte-erantzukizuna eta ekoberrikuntza bezalako neurriak ezartzeko.*

Viernes, 13 de diciembre de 2013

Nafarroako Gobernuak, gaur goizean, [87 enpresaren](#) konpromisoa eskertu du, kudeaketa arduratsua eginik lehiakortasuna handitu baitute Enpresen gizarte-erantzukizuna (EGE) eta ekoberrikuntza bezalako jardunen bidez. Neurri horiei esker, enpresek gizartean eta ingurumenean duten inpaktua hobetzen da.



Goicoechea kontseilaria Sarriarekin eta saritutako enpresetako ordezkariekin.

Lourdes Goicoechea Zubelzu Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak eta José Antonio Sarria Terrón Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko lehendakariak diplomak eman dizkiete saritutako erakundeei Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin eta Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroarekin (CRANA) batera antolatutako jardunaldian.

Enpresen ekintzak Enpresen gizarte-erantzukizuna (EGE) Nafarroan eragin, sustatu eta bultzatzeko programa orokorraren eta Enpresa eta Ingurumena programaren baitan egin dira. Erakunde partaideek gizartean eta ingurumenean duten inpaktua hobetzeko estrategiak ezarri dituzte eta, hala, lehiakortasuna hobetu dute merkatuan nabarmendutako erakundeak direlako.

**1.410.479 euroko laguntza publikoak gizarte-erantzukizunaren neurria ezartzeko**

Estrategiak gauzatzeko [InnovaRSE metodologia](#) aplikatu da. Metodo hori [Enterprise 2020](#) Europako ekimenak aintzat harturikoa da, EGEn alorreko Europako politikekin bat datorrelako. Enpresen gizarte-erantzukizuna (EGE) Nafarroan eragin, sustatu eta bultzatzeko programa orokorraren bidez, EGE hausnarketarako eta hobekuntza iraunkorrerako, egoera bakoitzera egokitze den, enpresei eguneroko laguntza ematen dien eta epe ertain zein luzerako estrategia oinarri duen prozesu gisa proposatzen duen metodologia aplikatzen duten erakundeentzako

laguntzak ematen dira. Programa abian jarri zenetik 778.232 euro jaso dituzte 253 enpresak.

Bestalde, 400 enpresak baino gehiagok parte hartu dute Enpresa eta Ingurumena programan 2005ean ezarri zenetik. Programa hori Nafarroako Gobernuaren, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren eta CRANAren arteko lankidetzaren hitzarmenetik sortutakoa da. Aholkularitza, kontu-ikuskerak, hobekuntza-planak eta metodologiaren azterketa eta garapena burutzen dira enpresek ingurumena kalitatearen eta enpresen lehiakortasunerako faktoretzat har dezaten, eta ez garapenaren eragozpen gisa. Hitzarmenaren bidez Nafarroak 632.247 euro inbertitu ditu programan.

Jardunaldian Germán Granada Forética sarearen zuzendari nagusiak hitz egin du. Sare hori EGEren garapenean parte hartzen duten erakunde eta profesionalena da. Halako neurriak aplikatzean izandako esperientzia azaldu duten enpresetako ordezkariak ere mintzatu dira. Zehazki, automozioaren sektorean eta nekazaritzako elikagaien industrian duten esperientziaren garrantzia azpimarratu da. Gainera, enpresetan ekoberrikuntza nola lan daitekeen azaltzen duen gida aurkeztu dute eta CRANA partaide duen Europako ENECO2 proiektuaren berri eman da. Amaitzeko, Imelda Lorea Lan eta Arriskuen Prebentzioko zuzendari nagusiak eta Javier Martinena Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko idazkari nagusiak jardunaldiari amaiera eman diote.